

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3948

AGINDUA, 2012ko abuztuaren 28koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena. Honen bidez, diru-laguntzetarako deia egiten zaie Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatuei eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoei, 2012-2013 ikasturtean atzerriko hizkuntza indartzeko ikastaroak eta jarduera osagarriak egin ditzaten.

Lanbide Heziketa ahalegin handia egiten ari da Europan, Estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan bere araudia, curriculum, giza baliabideak eta baliabide materialak produkzio-sistemak ezartzen dizkioten prestakuntza-eskaeretara egokitzeko.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 5/2002 Lege Organikoak lanbide-heziketako eskaintzen sistema integratu bat aurreikusten du: hezkuntza-sistemako hasierako lanbide-heziketa eta lan-sistemako enplegurako lanbide-heziketa. Legeak Lanbide Kualifikazioen Katalogo bat ezartzen du sistema integratuaren ardatz instituzional gisa, baita prestakuntzako baliabideak optimizatzer, ikaskuntzako emaitzak hobetzer eta, azken batean, biztanleria aktiboaren kualifikazio-maila goren lortzer bideratutako eskumen profesionalak ebaluatzer eta egiaztatzer prozedura bat ere.

Hezkuntzan 2/2006 Lege Organikoa eta Ekonomia Jasangarriari buruzko 2/2011 Legea garatuz, 1147/2011 Errege Dekretuak hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren ordenazio orokor berria ezartzen du. Agindu honen ondorioetarako, ordenazio berri horrek erdi mailako eta goi-mailako prestakuntza zikloez gain hasierako lanbide-kualifikazio programetako berariazko lanbide-moduluak hartzen ditu.

III Lanbide Heziketako Euskal Planean xedatutakoaren arabera 2012-2013 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak emango dituzten ikastetxe pribatuetan eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoetan hizkuntza indartzeko eta bestelako jarduera osagarriak finantzatzeko deialdia arautzen du agindu honek.

Horiek horrela, eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak (Eusko Jaurlaritzak ematen dituen laguntzak eta diru-laguntzak arautzen ditu) xedatutakoarekin bat hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren xedea.

Atzerriko hizkuntza indartzeko ikastaroak eta jarduera osagarriak sustatzea xede duten diru-laguntzetarako deia egiten da, 2012-2013 ikasturterako; halako jarduerak beharrezkoak dira, izan ere, Lanbide Heziketaren prestakuntza-eskaintza produkzio-sistemaren premietara egokituko bada.

2. artikulua.– Ikastetxe onuradunak.

2011-2012 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak itunduta edo hitzartuta dituzten ikastetxe pribatuak eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoak dira diru-laguntzetarako agindu honen onuradun.

3. artikulua.— Diruz laguntzeko moduko ekintzak.

Agindu honetan, diruz laguntzeko moduko ekintzak dira:

1.— Atzerriko hizkuntza indartzeko ikastaroak.

2.— Jarduera osagarriak, ondoren zehazten diren eremuetan garatzekoak:

a) Ikastetxearen informatika-sarea administratzea.

b) Ikastetxeetan informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien (IKTB) erabilera dinamizatzea.

c) Irakaste- eta ikaste-prozesuko berrikuntza-jarduerak.

d) Kultura ekintzailea sustatzea.

e) Irakaskuntza hobetzeko berrikuntza teknologikoa.

f) Kudeaketa-sistemak ziurtatzea.

3.— Artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoetan zehaztu diren jarduerak justifikatzeko, dagozkien nominak aurkeztu beharko dira; 2. paragrafoaren a) eta b) idatzi-zatietan adierazitako jardueretarako, berriz, konexio-gastuen fakturak edo aipatu jarduerak burutzeko pertsonen zerbitzu-kontratuak ere aurkeztu beharko dira.

4. artikulua.— Aurrekontu-hornidura.

Agindu honetako jarduerak diruz laguntzeko milioi bat zortziehun eta laurogei mila eta hogeit (1.880.020) euro bideratu dira; horietatik lauhun eta hogeita hamar mila eta hogeit (430.020) euro 3.1 artikuluan aurreikusi diren jardueretarako izango dira, eta milioi bat lauhun eta berrogeita hamar mila (1.450.000) euro 3.2 artikuluan aurreikusi direnetarako.

5. artikulua.— Baldintzak.

1.— Diru-laguntzak jaso ahal izateko, eskakizun hauek bete beharko dituzte ikastetxe onuradunek:

a) Diru-laguntza publikoak eskuratu ahal izateko zigor penal edo administratiboren baten edo horretarako ezgaitzen dituen lege-debekuren baten eraginpean ez egotea, ezta sexu-bazterkeriagatik zigortuta ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoaren arabera.

b) Gizarte Segurantzako betebeharrak eta zergak ordainduta eduki beharko dituzte. Izapideak aurrez aurre egi nahi dituztenek Gizarte Segurantzako betebeharrak eta zergak ordainduta dituztela egiaztatu beharko dute, hezkuntza-itunen erregelamendua onartzeko 293/1987 Dekretuaren hirugarren xedapen iragankorrean eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailak horretarako bereziki ezarritako araudian ezarritakoaren arabera.

c) Diru-laguntzak eta laguntzak onuradunei esleitzeko eta, hala behar bada, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea itzulketa- edo zehapen-prozedura oro, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek eman dituzten eta izaera berekoak diren laguntza edo diru-laguntzengatik hasi eta oraindik ere izapidetzen ari den prozedura oro.

2.– Gainera, atzerriko hizkuntza indartzeko ikastaroek, agindu honetako 3.1 paragrafoan zehaztu direnek, eskakizun berezi hauek bete beharko dituzte:

a) Ikastaro horiek 2012-2013 ikasturtean erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloren bateko bigarren mailan matrikulatuta dauden ikasleentzat izan behar dute.

b) Ikastaro horiek, ikastetxe bakoitzari dagokionez, 2012ko irailetik 2013ko martxora bitartean (biak barne) antolatuta egon behar dute, eta heziketa-zikloko irakastorduetatik kanpo eskaini behar dira.

c) Ikastaroek 80 eta 120 irakastordu bitarteko iraupena izan behar dute.

d) Ikastaroetarako matrikula egiteak borondatezkoa eta doakoa izan behar du, baina eskoletara joateak derrigorrezkoa.

e) Taldeko, 10-15 ikasle izan behar dituzte matrikulaturik.

f) Irakasleek, gutxienez, Hizkuntzen Europako erreferentzia-esparru bateratuko B2 mailari dagokion hizkuntza-ziurtagiria izan beharko dute.

6. artikulua.– Balorazio-batzordea.

1.– Lanbide Heziketako Zuzendaritza izango da diru-laguntza emateko organo instruktorea.

2.– Balorazio-batzorde batek aplikatuko ditu agindu honetan balorazioa eta hautaketa egiteko jasotzen diren irizpideak. Hauek izango dira batzorkide:

a) Lanbide Heziketako zuzendaria; lehendakaria izango da.

b) Lanbide Heziketako Zerbitzuaren arduraduna.

c) Lurralde Ordezkaritza bakoitzeko Lanbide Heziketako Zuzendaritzako teknikari bat.

d) Lanbide Heziketako Zuzendaritzako teknikari bat; idazkari izango da; iritzia ematerik izango du, baina botorik ez.

7. artikulua.– Laguntzak ematea eta eskabideak baloratzea.

1.– Diru-laguntza emango zaie laguntza eskatu eta baldintzak betetzen dituzten erakundeei.

2.– Laguntzaren zenbatekoa hautaketa- eta balorazio-irizpideen eta 8. eta 11. artikuluetan zehazten diren zenbatekoen arabera izango da.

8. artikulua.– Atzerriko hizkuntza indartzeko taldeak hautatzea.

1.– Ikastetxe bakoitzean atzerriko hizkuntza indartzeko zenbat talde hautatuko diren zehazteko, hau izango da irizpidea: 2011-2012 ikasturtean ikastetxe guztietan matrikulatu diren ikasleak kontuan hartuta, ikasturte horretan ikastetxe bakoitzean matrikulatu diren ikasleen proportzioa.

2.– Goiko paragrafoan lortutako koefizienteak handiagora edo txikiagora biribilduko dira, 4. artikuluko aurrekontu-izendapena kontuan hartuta zenbatekoa den gehieneko talde-kopurua.

3.– Ikastetxe bakoitzean gutxienez talde batek jasoko du diru-laguntza; horretarako, ordea, nahitaezkoa izango da eskaera gutxienez 10 ikaslek egina izatea.

4.– Diru-laguntzak atzerriko hizkuntza indartzeko talde guztientzat iristen ez badira, erdi-mailako zikloetan matrikulatutako ikasleek izango dute lehentasuna.

9. artikulua.— Atzerriko hizkuntza indartzeko taldeei izendatutako laguntzen zenbatekoa.

Ikastetxe bakoitzean hautatutako talde bakoitzeko diru-laguntza 40 eurokoa da irakastorduko, eta gehienez lau mila eta zortziehun (4.800) euro ikasturteko.

10. artikulua.— 3.2 artikuluan aipatu jarduera osagarrien balorazio-irizpideak.

3.2 artikuluan aipatu jarduera osagarriei dagozkien diru-laguntzak kalkulatzeko, irizpideok hartuko dira kontuan:

1.— 2011-2012 ikasturtean eman diren heziketa-zikloen kopurua —itunduak edo hitzartuak—, eta ikasturte berean eman den hasierako lanbide prestakuntza-programen kopurua: % 35eko balio haztatua.

2011-2012 ikasturtean LOE tituluei lotutako heziketa-zikloek ordeztu dituzten LOGSE tituluei lotutako heziketa-zikloak, paragrafo honetako heziketa-zikloen kopurua kalkulatzeari dagokionez, ziklo bera direla joko da.

Heziketa-zikloen eta hasierako lanbide prestakuntza-programen kopuru handiena lortzen duen ikastetxeak eskuratuko du adierazitako baloraziorik handiena, eta gainerakoak proportzio sinple baten bidez baloratuko dira.

2.— Heziketa-zikloetan eta hasierako lanbide prestakuntza-programetan 2011-2012 ikasturtean matrikulatutako ikasleen kopurua: % 10eko balio haztatua.

Matrikulatuta ikasle gehien dituen ikastetxeari egingo zaio adierazitako baloraziorik handiena, eta gainerakoak, proportzio sinple baten bidez baloratuko dira.

3.— Kudaketa-sistemen ziurtagiriak: % 16ko balio haztatua.

Ziurtagiri horiek honela baloratuko dira:

a) ISO 9001 ziurtagiria, kalitatearen kudeaketari buruzkoa: % 4ko balio haztatua.

b) EFQM ziurtagiriari % 4ko balio haztatuta emango zaio puntuazioa 500ekoa edo 500etik gorakoa bada, eta % 2koa puntuazioa 400etik 500era artekoa bada (biak barne).

c) ISO 14001 ziurtagiria, ingurumenaren kudeaketari buruzkoa: % 4ko balio haztatua. ISO 14001 ziurtagiria izan ezean, Ekoscan ziurtagiriak izango du % 2ko balio haztatua.

d) OHSAS ziurtagiria, laneko osasun eta segurtasunari buruzkoa: % 4ko balio haztatua.

4.— Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak sustatutako berrikuntza-jardueretan 2008-2009, 2009-2010, 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetan parte hartu izana: % 14ko balio haztatua.

Jarduera horietan parte hartu izana baloratzeko, irizpideok hartuko dira kontuan:

a) Esperientziaren bidez Gaitasuna Ebaluatu eta Aitortzeko Sisteman parte hartu izana ikastetxeak: % 4ko balio haztatua. Lanbide Heziketako Kalitatea eta Gaitasuna Ebaluatzeko Euskal Agentziak egingo du, ofizioz, parte-hartze horren ziurtagiria.

b) Urrats bat ekintzailatzeko proiektuetan edo Europako Enpresa Gaztea (EGG) programa ezartzen parte hartu izana: % 4ko balio haztatua. Proiektu horietan parte hartu izana agiri bidez ziurtatuko da; Tknika-rekin egindakoak, ordea, ofizioz ziurtatuko dira.

c) Tknika Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentroak sustatutako berrikuntza-proiektuetan parte hartu izana: % 6ko balio haztatua. Proiektu horietan parte hartu izana ofizioz ziurtatuko du Tknika-k.

5.– Lanerako Lanbide Heziketan parte hartu izana: % 25eko balio haztatua.

2011. urtean amaitutako ikastaroak bakarrik baloratuko dira, eta irizpideok hartuko dira kontuan.

a) Batu egingo dira INEMek eta Lanbidek ziurtatutako orduak eta Hobetuzek Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren 2010eko eta 2011ko deialdien bitartez emandakoak. Deialdiok EAEko langileen prestakuntzarako diru-laguntzak emateko dira, eta, hurrenez hurren, 2010eko urriaren 13ko EHAAn eta 2011ko abuztuaren 4ko EHAAn argitaratu ziren. INEMen bidez egindako ikastaroak agiri bidez justifikatu beharko dira; gainerakoak, ofizioz justifikatuko dira.

b) 2011. urtean emandako eta amaitutako ikastaro-orduen kopuru handiena lortu dituen ikastetxeari egingo zaio adierazitako baloraziorik handiena, eta gainerakoak, proportzio sinple baten bidez baloratuko dira.

11. artikulua.– Jarduera osagarriei dagokien kuota zehaztea.

Onuradun bakoitzari zenbateko diru-laguntza emango zaion kalkulatzeko, hau izango da irizpidea: agindu honetako 4. artikuluan ezarri den aurrekontu-hornidura ikastetxe bakoitzak lortu duen puntuazioaren arabera banatuko da, zuzeneko proportzioaren arabera. Zenbateko hori ez da inoiz izango ikastetxeak eskatutakoa baino handiagoa.

12. artikulua.– Eskabideak, dokumentazioa eta betekizunak egiaztatzea.

1.– Eskabideak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan aurkeztuko dira (ikastetxea zein lurralde historikotan kokatuta dagoen, hango ordezkaritzan), edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatzen den organoren batean. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik.

Bide elektronikoa erabiliz ere aurkeztu ahalko dira eskabideak, euskadi.net egoitza elektronikoan sartuta.

Atzerriko hizkuntza indartzeko ikastaroei dagokienez, erantsi behar diren eskabidea eta agiri-ereduak honako helbide honetan daude:

[https://www.euskadi.net/y22-izapide/es/contenidos/ayuda_subvencion/curso_refuerzo_fp / es_ayuda/ficha_procedimiento.html](https://www.euskadi.net/y22-izapide/es/contenidos/ayuda_subvencion/curso_refuerzo_fp/es_ayuda/ficha_procedimiento.html), eta jarduera osagarriei buruzkoa hemen: [https://www.euskadi.net/y22-izapide/es/contenidos/ayuda_subvencion/activid_comple_fp / es_ayuda/ficha_procedimiento.html](https://www.euskadi.net/y22-izapide/es/contenidos/ayuda_subvencion/activid_comple_fp/es_ayuda/ficha_procedimiento.html)

2.– Ikastetxe interesdunek bitarteko elektronikoak erabiliz eskatu, kontsultatu edo burutu ahalko dituzte prozedura honen izapideak.

3.– Izapidetze elektronikoa arautu egiten dute otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak, Administrazio Elektronikoari buruzkoak, eta Informatika eta Teknologiako zuzendariak 2006 otsailaren 9an eman zuen Ebazpenak; ebazpen horren bidez, Platea E-Administrazioko Plataforma Teknologikoa onartu zen.

4.– Eskaerak eta erantzukizunpeko adierazpenak izapidetzeko azalpenak eta gainerako ereduak artikulua honen 1. puntuan aipatu helbide elektronikoetan daude eskuragarri.

5.– Eskaeraren osteko izapideak helbide honetan egingo dira: <https://www.euskadi.net/misgestioness>

6.– Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztuko dira:

a) «I. eranskina - Atzerriko hizkuntza indartzeko ikastaroen memoria» (3.1 artikulua).

b) «II. eranskina – Jarduera osagarrien memoria» (3.2 artikulua).

c) Eskatzailearen –pertsona edo erakundea– erantzukizunpeko adierazpena, betebeharrak egiaztatzeko:

– Edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatutatik jasotako diru-laguntza, laguntza, sarrera edo bestelako baliabideak eskatu eta jaso izana.

– Diru-laguntza publikoak eskuratu ahal izateko zigor penal edo administratiboren baten edo horretarako ezgaitzen dituen lege-debekuren baten eraginpean ez egotea, ezta sexu-bazterkeriagatik zigortuta ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoaren arabera.

– Eskabideko eta harekin batera doan dokumentazioko datuak egiazkoak direla, eta betetzen dituela laguntza horiek jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak.

d) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko abuztuaren 30eko deialdian (irailaren 12ko EHAA) eskatutako agiriak edo egiaztatzeak eman izanaren adierazpena. Deialdi haren bidez, diru-laguntzetarako deia egiten zaie Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatuek eta udal-titulartasuneko ikastetxe publikoek 2011-2012 ikasturtean atzerriko hizkuntza indartzeko ikastaroak eta berrikuntza-jarduerak egiteko laguntza-deialdia egiten da, deialdi honetan arautzen den laguntza-deialdian xedatutako onuradun berei bideratua.

7.– Organo kudeatzaileak zuzenean egiaztatuko du laguntzak eskatu dituen erakundeak betetzen duela zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egon behar duela dioen baldintza. Horretarako, ez da behar erakunde eskatzailearen oniritzikirik.

8.– Aurkeztu den eskabidean akatsen bat edo okerren bat dagoela ikusten bada, ikastetxe interesdunari 10 eguneko epea emango zaio akatsa zuzen dezan edo behar diren agiriak ekar ditzan. Hala egin ezean, eta 30/1992 Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera ebazpena eman ondoren, bere eskaeran atzera egin duela joko da (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

13. artikulua.– Ebazpen proposamena.

Balorazio-batzordeak ebazpen-proposamena egingo dio Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordeari, eta, hartan, 14.1 artikuluan adierazten diren datuak jasoko dira.

14. artikulua.– Ebazpena.

1.– Deialdia Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordeak, ebatziko du, eta ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz jakinaraziko zaie interesdunei. Ebazpenean, erakunde onuradunak zein diren eta zer diru-laguntza eman zaien zehaztuko dira, bai atzerriko hizkuntzak indartzeko ikastaroei dagokienez (3.1 artikulua) eta bai jarduera osagarriei dagokienez (3.2 artikulua). Ebazpenean, horrekin batera, onartu ez diren eskabideak eta diru-laguntza ukatu zaienak zehaztuko dira, hartarako arrazoiak emanda.

2.– Jendeak horren berri izan dezan eta informazio orokorraren ondorioak izan ditzan, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

3.–Agindu honen babesean aurkeztu diren eskaerei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazpena egiteko epea agindua argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2012ko azaroaren 30ean amaituko da. Epe horretan berriazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskabideak ezetsitatzat jo ahal izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 44.1 artikuluan araututakoaren arabera.

15. artikulua.– Justifikazioa.

Atzerriko hizkuntzak indartzeko ikastaroak (3.1 artikulua) eta jarduera osagarriak (3.2 artikulua) finantzatzeko diru-laguntzak justifikatzeko, III. eranskina beteko da, «III. eranskina – Erantsitako nomina eta fakturen bidez justifikatzea». Eranskinarekin batera, dagozkien nominen kopiak, eta, 3.2 artikulua a) eta b) idatzi-zatietan zehaztutako jardueretan, jarduera horiek burutzeko 2013ko urriaren 10a arteko konexio-gastuen edo pertsonen zerbitzu-kontratuen fakturen kopiak aurkeztuko dira.

Justifikazio horiek aurrez aurre edo elektronikoki aurkeztu ahal izango dira <https://www.euskadi.net/misgestion>

Agindu honen 3.2 artikuluan diruz lagundutako jardueren arduradunek astean zenbat orduko liberazioa duten Hezkuntza Jardueren Dokumentuan (EJD) zehaztuko da. Hori ere erantsiko da.

16. artikulua.– Diru-laguntzak ordaintzea.

1.– Agindu honetako 3.1 artikuluari dagozkien diru-laguntzak bi alditan ordainduko dira, honela:

a) Lehenengo aldian, onuradun bakoitzari dagokion zenbatekoaren % 50 ordainduko da, betiere 19.1 artikuluko epea igaro eta diru-laguntzari uko egin ez bazaio.

b) Bigarren aldian, gainerako zenbatekoa ordainduko da, diruz lagundu diren jarduerak amaituta, sortutako gastuak agiri bidez justifikatu ondoren.

2.– Agindu honetako 3.2 artikuluari dagozkien diru-laguntzak bi alditan ordainduko dira, honela:

a) Lehenengo aldian, onuradun bakoitzari dagokion zenbatekoaren % 34 ordainduko da, betiere 19.1 artikuluko epea igaro eta diru-laguntzari uko egin ez bazaio.

b) Bigarren aldian, gainerako zenbatekoa ordainduko da, diruz lagundutako jarduera amaitu eta sortutako gastuak agiri bidez justifikatu ondoren.

3.– Artikulu honetan aipatutako lehenengo ordainketei edo aurreratutako ordainketei dagokienez, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitako bermeak aurkeztu beharko dira (1992ko otsailaren 7ko EHAA, 26. zk.).

17 artikulua.– Baldintzak ez betetzea eta itzulketa-prozedura.

1.– Laguntzak ezeztatu egingo dira baldin eta ikastetxe onuradunek bete gabe uzten badituzte agindu honetan ezarritako baldintzak eta betekizunak, eta laguntzak ez badituzte erabiltzen aurkeztutako proiektuan zehaztutako helburuetarako. Hori dela eta, diru-laguntzak benetan zertara bideratu diren egiaztatze eskumena izango du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak.

2.– Diru-laguntza ematerakoan kontuan izan ziren baldintzak betetzen ez badira, jasotako dirua eta horrek sortutako legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuliko

zaizkio. Hala ezartzen dute Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak eta Euskal Autonomia Erkidegoan diru-laguntzen bermeak eta itzulketak arautzen dituen 698/1991 Dekretuak.

3.— Lehen esandakoari kalterik egin gabe, diru-laguntza emateko kontuan izan ziren baldintzetan aldaketaren bat gertatzen bada, aldatu egin ahal izango da diru-laguntza emateko ebazpena ere, betiere agindu honetan onuradun izateko ezarritako baldintzak errespetatzen badira.

18. artikulua.— Laguntzen bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak dira beste instituzio publiko edo pribaturen batek helburu bererako ematen dituenekin, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Beste diru-laguntza edo laguntza batzuk jasoz gero, horren berri eman beharko da. Izan ere, gainfinantzaketarik gertatuz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da gehienez jarrita dagoen mugaraino.

19. artikulua.— Ikastetxe onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

1.— Onartu egin beharko dute emandako diru-laguntza. Horretarako, diru-laguntzaren esleipena EHAAn argitaratu eta hamabost eguneko epean ikastetxe onuradunek berariaz eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badiote, onartu egin dutela ulertuko da.

2.— Laguntza zertarako eman den, hartarako erabili beharko dute.

3.— Lanbide Heziketako Zuzendaritzari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eman egin beharko diete, beren jardunean ari direla, deialdi honen kargura jasotako diru-laguntzei buruz eskatzen dieten informazioa.

4.— Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribaturengandik agindu honetako helburu bererako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskuratuz gero, horren berri eman beharko diote Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lanbide Heziketako Zuzendaritzari.

5.— Laguntza ematerakoan kontuan izandako gorabeheraren bat aldatzen bada, horren berri eman beharko diote Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lanbide Heziketako Zuzendaritzari.

20. artikulua.— Datuak babestea.

1.— Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen izapideak egiterakoan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek tratatzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, «Diru-laguntzak eta laguntzak» izeneko fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi horren helburua diru-laguntzen deialdi hau kudeatzea izango da, baita deialdi honetara aurkezten diren pertsonen deialdiaren garapenari buruzko informazioa ematea ere. Fitxategi honen arduraduna Lanbide Heziketako Zuzendaritza da. Datuak eskuratzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak Lanbide Heziketako Zuzendaritzan baliatu ahal izango dira. Hau da helbidea: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

2.— Deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen diote Lanbide Heziketako Zuzendaritzari aurkeztu diren agiriak egiazkoak diren frogatzeko beste erakunde publiko batzuetara jo dezaten.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Agindu honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Aurka egiteko, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hil biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.— Agindu honetan prozedurari buruz arautu gabe geratu diren alderdiei Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa aplikatuko zaie.

Hirugarrena.— Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 28a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.